

Lu la lu

Adina: 5 urtetik aurrera

Kopurua: Mugarik gabe


Materiala: Ezer ez

Espazioa: Edozein

Iruditan: [ikusi](#)

Materiala

- [MP3 \(1 Mb.\)](#)
- [Realplayer \(178.9 Kb.\)](#)



Azalpena

1

Jolaskide guztiak lurrean edo aulkietan biribil bat eginez eseriko dira. Abestia abesten duten bitartean, eskuekin mugimendu batzuk egin beharko dituzte. Hiru mugimendu daude eta mugimendu bakoitza abestiak irauten duen bitartean egin behar da.

LEHEN MUGIMENDUA:

1. Lehendabizi, bakoitzak bere izterrak joko ditu: eskuin eskuarekin eskuin izterra eta ezker eskuarekin ezker izterra.
2. Hurrengoan eskuin eskuarekin gure eskuinean daukagunaren ezker izterra joko dugu, eta ezker eskuarekin gure eskuin izterra.
3. Ondoren, berriro ere, gure eskuin eskuarekin gure eskuin izterra joko dugu, eta ezker eskuarekin ezker izterra.
4. Azkenik gure eskuin eskuarekin gure ezker izterra joko dugu, eta gure ezker eskuarekin gure ezkerrean daukagunaren eskuin izterra joko dugu.

2

Lau mugimendu horiek abestiak irauten duen bitartean errepikatuko dira.

BIGARREN MUGIMENDUA:

1. Lehendabizi, bakoitzak bere izterrak joko ditu: eskuin eskuarekin eskuin izterra, eta ezker eskuarekin ezker izterra.
2. Txalo bat jo.
3. Ezker eskuarekin norberaren eskuin ukondoa jo.
4. Ezker eskuarekin norberaren eskuin sorbalda ukitu.
5. Izterrak jo: eskuin eskuarekin eskuin izterra, eta ezker eskuarekin ezker izterra.
6. Txalo bat jo.
7. Eskuin eskuarekin norberaren ezker ukondoa ukitu.
8. Eskuin eskuarekin norberaren ezker sorbalda ukitu.

3

Zortzi mugimendu horiek abestiak irauten duen bitartean errepikatuko dira.

HIRUGARREN MUGIMENDUA:

1. Izterrak jo: eskuin eskuarekin eskuin izterra, eta ezker eskuarekin ezker izterra.
2. Eskuin eskuarekin norberaren sudurra hartu eta ezker eskuarekin norberaren eskuin belarria hartu.
3. Izterrak jo: eskuin eskuarekin eskuin izterra, eta ezker eskuarekin ezker izterra.
4. Ezker eskuarekin norberaren sudurra hartu eta eskuin eskuarekin norberaren ezker belarria hartu.

4

Lau mugimendu horiek abestiak irauten duen bitartean errepikatuko dira.

LU LU LA LU LU
LA LU LA LU LA LE
LU LA LU LA LU LA
LU LA LU LA LE

LU LU LA LU LU
LA LU LA LU LA LE
LU LA LU LA
LU LA LE

Informazio soziokulturala

Euskal Herriko Iparraldean jaso dugun jolas hau nahiko jolas berria dela esan daiteke. Ez dago oso zabaldua, baina oso jolas dibertigarria da eta bai haurrekin bai helduekin egiteko oso aproposa da.

Aldaerak

*ume txikientzat

Jolas honen mugimenduak nahiko zailak dira, batez ere hirugarrena. Beraz abesti bera erabiliz beste mugimendu errazago batzuk egin daitezke.

Adibidez: izterrak jo, txalo jo eta norberaren burua jo.

Esamoldeak

- KORROAN:
Biribilean, kirrinkiloan, errondan.
- GAIZKI EGIN, HUTS EGIN
(mugimenduak ondo ez egitea)